

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUNEAN ERREFERENTE

EAJ-PNVk konpromiso argia, nabaria, nabarmena eta ukazina erakutsi du irisgarritasunaren mailarik altuena bermatzen duten proiektuetan etengabe sakontzeko; halaber, mugikortasunari dagokionez jasangarritasunik handiena dago Getxo udalerrri osoan. Amaia Agirre buru duen Eusko Alderdi Jeltzaleak proposatutako hauteskunde-programako 7. konpromiso gisa jaso zen: "Getxo, mugikortasun eta irisgarritasunean erreferente: espazio irisgarriak, bidegorriak eta aparkalekuak". Eta Getxoko auzoetatik buelta bat emanez gero, ikusiko dugu jarduketak garrantzitsuak egin direla jada eta beste batzuk prozesuan daudela. Hitza betetzen dugu, eta ekintza zehatzekin erakusten gabilta. Aurrera doaz Areeta-Romoko geltoki-plaza egokitzeko lanak, hura atseginago egiteko xedearekin, bai eta Kale Nagusiaren eraldaketa ere. Zugatzarte etorbidea mugikortasunaren eta irisgarritasunaren adibide ez ezik, ingurumen-deskontaminazioari nahiz deskontaminazio akustikoari dagokienez jasangarritasunaren eta segurtasunaren eredu ere bada. Gauza bera gerta-



tzen da Romoko erdigune osoarekin; izan ere, oinezkoentzako eremuak egiten ari dira bertan eta pertsonentzako irisgarritasuna ahalbidetzen ari da. Aiboako metro-geltokiaren eta Iturribarrikeriko loturaren artean sortutako espazio berria ere orain askoz irisgarriagoa eta atseginagoa da hura erabil-

tzen duten herritarrentzat. Aipatzekoa da Usategiko igogailua, garapen-prozesuan dagoena, bai eta Genaraxuko oinezkoentzako ibilbidea ere, izugarri eskertu baitigute. Etxebizitza-erakin guztien irisgarritasuna hobetu nahi dugu hirigintzako araudian aldaketak eginez, eta udal-

espazioetan aurerapausoak eman nahi ditugu benetako irisgarritasun unibertsala eskaini ahal izateko. Jakinaenez, ezinbestekoa da Gainza, Alango eta Ibarbegoako aparkalekuak aipatzea, proiektu horiek ere konpromisoak betetzen ditugun erakusgarri baitira. Getxoztarrek horiez gozatzea nahi dugu. Nabarmentzekoa da ere TAOren araututako aparkaleku-sistema berria; herritar ugari eskatu zuten eta egikaritu ahal izan dugu azkenik, plangintzak proposatu dizkigutenei erantzunez eta,aldi berean, gure merkataritza eta ostalaritzari modu positiboan eragiten dion mugikortasun hobea ahalbidetuz. Getxoko bidegorrietan ere jarraitzen dugu lanean: Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, etorkizunean egongo den itsasadarreko bidegorria diseinatzeko ari gara, zeinak Getxo Leioa, Erandio, Bilbo eta Ezkerraldea lotuko baititu geroz eta gehiago erabiltzen den eta jasangarriena den garraio-bidea erabiliz, bizikleta, alegia. Hala, Getxoko EAJ-PNVk 7. konpromisoa ere bete du, irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzkoa.



AREETAN APARKALEKUAK KENTZEARI EZ



Kale Nagusia zati batean oinezkoentzako egiteko obrak aurrera doaz, baina PP taldeko kideok obra horien aurka gaude guztiz. Ondorio zuzenak izango dituzte: aparkatzeko 150 toki kenduko dira. Horrez gain, Mesedeetako elizaren gunean beste 25 partzela kenduko dira, eta beste 25 Sarajevo inguruan, Geltoki plazaren eraberritzea dela eta. Hau da, guztira

200 aparkaleku-plaza kenduko dira Areetan. Horren harira, aparkatzeko arazoa getxoztarren kezkarik handiena bada ere, EAJK ez du alternatibarik eskaini eta behin eta berriz baztertu ditu Kale Nagusiaren hasieran edo Gobelaurre parkearen azpian lurpeko aparkaleku bat egiteko gure proposamenak. #esnatuGetxo



GURE ONDARE ETA NORTASUNA GALTZEN JARRAITZEN DUGU



Aurreko astean beste eraiste bat izan genuen gure herrian: Villa Fernanda eta Villa Amparo, Algortako Haurtegi ohia. Eusko Jaurlaritzak eskatu zuen 2014. urtean eraikina monumentu gisa izendatzea eta babestea, baina EAJK eta PSEk bere eraisketa baimendu zuten, luxuzko etxebizitzak eraikitzeko, noski. Udal Go-

bernuak eraikina babesteko aukera zuen, arkitektonikoki balio handia zuelako. Baina argi dago ez dutela inolako interesik gure ondare, historia eta nortasuna zaintzeko. Zoriturrez, HAPO berrian gauza bera gertatuko da, baserriak eta eraikin historikoak botatzen jarraituko dutelako. Lotsagarria benetan.



MUGIKORTASUN JASANGARRIA, GETXOKO ETORKIZUNERAKO GILTZARRI

Mugikortasunaren Europako Astearen harira, PSE-EEK mugikortasun jasangarriaren alde egiteko politikak sustatzen jarraitu nahi du. Ekimen horretan parte hartu duten hirietako bat izan da Getxo; izan ere, mugikortasun aktiboaren, garraio publikoaren eta garbiak nahiz adimentsuak diren beste garraio-bide batzuen aldeko jarri-eraldaketa bultzatu nahi du. Gure ustez, udalerriek egin beharreko bilakaerak barne hartu behar du askoz eraginkorragoak diren eta ingurumenarekin konprometituagoak dauden mugikortasun-mekanismoak ezartzeko eraldaketa, hala nola garraio publikoa, Pedro Sánchezen Gobernuak

diruz lagundu berri duena. Alabaina, PSE-EEren konpromisoa ez da parte-hartze hori soilik. Udaleko gobernu-taldeko kideok hiri-erlaketaren alorrean aurrera egiteko akordioak eta neurriak aurkezten gabilta, oinezkoek ibilgailu pribatuek baino espazio gehiago izan dezaten. Udalerria oinezkoentzat egiteko konpromiso horren eredu da Kale Nagusia, isurketa gutxi gune bihurtuko baita. Horrez gain, bizikletaren erabilera sustatze aldera, Getxo eta Bilboren artean bizikleta-ibilbide bat sortuko da, Kale Nagusiko obrak aprobetxatuz, gune horretan bidegorriko beste tarte bat sortuko baita.



GETXOKO ONDAREAREN BESTE GALERA BAT

Algortako Haurtegi haur-eskola udal-gobernuak Getxoko ondare historikoarekin duen babesgabeziaren azken biktima izan da. Haur-eskola itxi zen lehenik, eta orain eraikin adierazgarri hori eraitsi da espekulazio-arrazoak direla bide. Gure kultura- nahiz hirigintza-ondarearen aurkako erasoaz gain, udalerririk haurrak zaintzeko espazio gehiago izateko duen behararen aurkako

erasoa ere bada. Argi dago haur-eskola publikoak falta direla, eta Haurtegi itunpeko ikastetxea zen, funts publikoak jasotzen zituena eta hamaizazpi langile zituena. Gobernu-taldeak ulertu behar du Getxok ez duela higiezinaren espekulazio gehiagorik behar: hezkuntza-ekipamenduak sustatu behar ditu eta bere ondarea babestu behar du. elkarrekinpodemos@getxo.eus